

## **ERRENTERIA / Vernerren 'De la imaginacion a la realidad' erakusketa, liburutegian**

**Hilaren 15era bitarte ikusteko aukera egongo da, eta Vernerren saiakera zientifikoak bildu dituzte**

I. VIDAL

Julio Vernerren De la imaginacion a la realidad erakusketa zabalik dago Errenteria-Oreretako Udal Liburutegian, hilaren 15era arte. Erakusketaren bidez, egileak hainbat garaitan jorratutako eleberri zientifiko unibertsalenak ikusteko eta ezagutzeko aukera egongo da.

Adin guztietako jendearentzako prestatu dute erakusketa, eta hurrek eta gazteek liburuen bitartez Vernek egin zituen aurrerapen zientifikoak eta berak bizitzan izan zituen pasadizoak ezagutzea da helburua.

### **Irakurtzeko jakin-mina piztu**

Bisitarientzako "diseinu ikusgarriak eta eskematikoak aukeratu dituztela jakinarazi dute erakusketaren antolatzaileek. Hala, Udal Liburutegiko kideek "Vernek imajinatu zituen zientzia eta teknologia, eta bere obra eta bizitza zein kuriositateak azaltzeko kartelak egin dituzte. Horrez gain, erakusketa aretoan dokumentalak eskainiko dituzte.

Vernerren erakusketa horri esker, "irakurtzeko ohitura eta inguratzen gaituen mundu zoragarria eta interesgarria ezagutzeko jakinmina piztuko zaio bati baino gehiagori, azaldu dute antolatzaileek.